



Aberreen Eskola 2013-2014 Eskola Agenda

Bizkaiko 21 udalerrik argitaratu dute 2013-2014 ikasturteko **ESKOLA AGENDA**, lehen hezkuntzako ikasleen artean banatzeko.

Ekimenaren ezaugarri nagusiak

Azken urteotan egin moduan, ikasturte hasiera honetan ere eskola agenda jasoko dute Bizkaiko hainbat umek euren ikastetxeetan. Ikasturte honetan, *alegiak* landuko dira agendan.

Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatutako proiektu honetan, Bizkaiko 12 udalerrik eta mankomunitate batek parte hartu dute eta herriotako ikastetxeetan banatu dute agenda.

Helburua

Eskola-agendaren helburu nagusiak euskal kultura sustatzea eta guraso eta ikastetxeen arteko harremana euskaraz izatea dira.

Parte hartzaileak

Bizkaiko **12 udal** eta **mankomunitate 1**. Guztira, honako erakunde hauek:

Balmaseda • Bermeo • Elorrio • Enkarterriko Mankomunitatea • Erandio • Etxebarria • Muxika • Mundaka • Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz • Muskiz • Ortuella • Sukarrieta • Zierbena

Agendaren edukia

Aurtengo eskola agendaren gai nagusia alegiak dira. Animaliak protagonista dituzten ipuinok irakurriz, une atsegina igarotzeaz gain, animalien jokabideak ardatz harturik hainbat kontu ikasteko aukera izango dute etxeko txikiek.

Hilabete bakoitzean alegia bat agertzen da eta alegiaren azpialdean etxean zein ikasgelan lantzeko hiru-lau jolas edo ariketa. Horrekin batera, egun bakoitzean esaldi bat irakurri eta horren inguruan gogoeta egiteko aukera ere eskaintzen du agendak.

Aurten, gainera, gurasoen eskaerei jarraituz, irakasleentzako oharrak zelan idatzi azaltzen duen atala ere jaso dugu agendan.

Hartzaileak

Egitasmoaren hartzaileak Lehen Hezkuntzako gaztetxoak dira, 6 eta 12 urte bitartekoak.

Guztira **5.482 ale** banatuko dira ikasturte hasiera honetan aipatutako herrietako ikastetxeetan.